

## HITZ BITAN

EUROPAKO BATASUNA. Kideen kritikak eragin ditu

## Europako Batzordeari botere gehiago ematea proposatu du Romano Prodi presidenteak

Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batzordeak EB Europako Batasuneko instituzioen funtzionamendu eraren erreforma sakon bat proposatu zuen atzo. Erreformaren xedea 25 estatu kide edo gehiago izango dituen etorkizuneko Batasuna «demokratikoagoa, eragingarriagoa eta ulergarriagoa» egitea da. Romano Prodiaren asmoa da Batzordeak EB ordezkatzea atzerri politikan eta segurtasun komunean zein euroaren eremuko politika ekonomikoan.

Hainbat gairen artean, Brusek proposatu zuen estatuen be-toak ezabatzea, Europako Batzordeko presidentea Europako Parlamentuak hautatzea, eta

batzordean atzerri harremanetarako EBren idazkariaren figura eratzea. Proposamen hauek gobernu batzuetan kezka handiak eragiten dituzte, eta horietako batzuk Nizako Akordioaren negoziatioetan errefusatu zituzten. Haatik, Europako Batzordeko presidente Romano Prodi zera esan zuen: «Aurrera, oso aurrera, begiratu nahi badugu gure aurretik izan diren estatista handien —Jean Monnet kasu— bizkarrean igo behar dugu». Europako Konbentzioako presidenteorde Giuliano Amato kontent agertu zen Prodiaren proposamenekin.

## Prodi eta Europako Konstituzioa

Atzo polemika izan zen Prodiaren, hau iragan uztaitetik Euro-



JACQUES COLLET / EPA

Europako Konbentzioaren atzoko saioa. Giscard d'Estaing eta Prodi eskuin aldean daude.

parako Konstituzio proiektu bat isilean ontzen aritu dela jakin zenean. Printzipioz, lan hori Europaren geroaren gaineko Konbentzioari dagokio, duela urtebete Frantziako presidente ohi

Valéry Giscard d'Estaingek buru duena. Prodiaren ahotan, bere asmoa «lanerako tresna tekniko bat ontzea da», Konstituzioa «irudikatze».

Bien bitartean, Frantzia eta

Alemania bat etorri ziren EBko kideei honako proposamena egiteko: Kopenhageko irizpideak betez gero, Turkia EBn sartzeko negoziatioak 2005eko uztailan hasiko lirateke.

## BIRMANIA

## Ne Win jenerala hil da, 26 urteko agintaldi militarra ezarri zuena

Ne Win jenerala hil egin zen atzo Rangun hiriburuan, 91 urte zituela. Ne Winek estatu kolpea jo zuen 1962. urtean, eta 1988a arte egon zen boterean. Bere agintaldian nazionalizazio eta bakartze prozesua abiarazi zuen Birmanian (Myanmar, bertako hizkuntzan). Aung San Suu Kyi ekintzaile politikoa —independentziaren heroi Aung Sanen alaba— Birmaniarra heltzearekin batera hasi zen Ne Winen gainbehera. Jeneralak protestak zapaldu zituen. Azkenean, boteretik erretiratu behar izan zuen agintea konfiantzazko militarren esku utzita.

## BOLI KOSTA

## Gobernuaren eta gerrillarien arteko borroka areagotu egin dira herrialdeko mendebaldean

Azken egunotan borroka latzak izan dira Boli Kostako mendebaldean, Gobernuko tropen eta gerrillarien arteko liskarretan. Matxinoek eskualdeko lau hiri hartu zituzten joan den astearen amaieran, eta Gobernuak ez du haiek berriro eskuratzetik izan. Eskualde horretatik alde egindako iheslariek bertako kale eta errepideetan gorpu mordoa dagoela adierazi dute. Bien bitartean, Afrika mendebaldeko estatuek Boli Kostarako bultzatutako bake elkarriketak atzeratu egin dira, horretarako arrazoi zehatzik eman gabe.



ENRIQUE RIVAS / EPA

## VENEZUELA

## Greba dela eta, petrolio lantegiak babesteko agindu die Chavez presidenteak militarrei

Venezuelan azken lau egunotan oposizioa egiten ari den grebak eragin ez diezaion, petrolio industria defendatzeko agindu dio Armadari Hugo Chavez presidenteak. Estatuaren petrolio enpresa nagusiari erasotzea herrialdearen ekonomiari erasotzea zela esan zuen Chavezek atzo. Herenegun grebarekin bat egin da, petroliontzia bat gelditzea erabaki zuen haren kapitainak.

## EKIALDE HURBILA

## Jerusalemgo anexioa gaitzestearen kontra bozkatu dute AEBek

Israelek Jerusalem bere hiriburutzat aldarrikatzeko 1967. urtean harturiko erabakia baliogabetzen duen Nazio Batuen Erakundearen ebazpenaren aurkako botoa eman zuen atzo, lehen aldiz, Estatu Batuetako ordezkariak. Irudian, Estatu Batuetako ordezkariak NBEn bozketa batean parte hartzen.



SUZANNE PLUNKETT / AP



ELVIRA URQUIJO / EFE

## IMMIGRAZIOA

## 200 etorkin baino gehiago lehorreratu dira Kanaria uharteetan, Ghanako itsasontzi batetik

Ghana eta Malitik alde egindako 200 etorkin baino gehiago Kanaria Handia hiriko kaian lehorreratu ziren atzo, haien ontziak istripua izan, eta portuan sartzea lortu ondoren. Espainiako Poliziak 243 lagun atxilotu zituen kaiaren inguruan. Irudian, etorkinen ezkutaleku zen ontziaren sotoa.

## Sangatte errefuxiatu gunean ziren hainbat etorkin Erresuma Batura joaten hasi dira, akordio baten ostean

Calaiseko (Frantzia) Sangatte errefuxiatu gunean dauden 4.800 etorkinetatik 1.200i —1.000 irakiar eta 200 afganiar— Erresuma Batura joatea eta lau urterako bisarekin lana legearen baitan bilatzeko baimena ematea hitzartu du berriki Londresek. Horietatik lehen taldeak Sheffieldeko eta Londreseko zentroetara iritsi ziren atzo. Gainerako 3.600 etorkinei dirua eskaini zaie beren herrialdeetara itzul daitezela. Sangatteko gunea itxiko dute.

## PAKISTAN

## Hiru lagun hil zituzte kontsulatu baten aurkako erasoan

Hiru pakistandar hil zituzten atzo Karachi hirian Mazedoniak duen kontsulatuaren kontra eginiko erasoan. Egoitza larri kalte zuen bomba bat leherrarazi aurretik, hiru lagunok —zaindari bat tartean— lotu eta hil zituzten erasotzaileek.